

# Aditz-finitotasuna haur elebidunen euskaran eta gaztelanian

(Verb finiteness in the speech of Basque/Spanish bilingual children)

Ezeizabarrena, María José<sup>1</sup>

Euskal Herriko Unib.

Filologia, Geografia eta Historiako Fak.

Hizkuntzalaritza Arloa

Unibertsitatearen pasalekua, 5

01006 Gasteiz

fepezsem@vc.ehu.es

BIBLID [1137 - 4446 (2000), 12; 31-46]

---

*Haur elebidunak bereganatzen ari dituen bi hizkuntzak bereizten dituen jakin nahian, euskal eta erdal aditz-morfologikoaren aldi bereko bereganatzea aztertu da lan honetan. Euskaraz eta gaztelaniaz aditzaren barruko pertsona-marken antolaketa oso desberdina izan arren antzeko hurrenkera erakusten dute haurrek bi hizkuntzetako morfologiaren bereganatzerakoan: lehenengo subjektuarekiko komunztadura-markak bereganatu dituzte haurrek, eta beranduxeago objektuekikoak, bateratsu bi hizkuntzetan. Aldiz, alde nabarmena erakusten dute euskaraz eta gaztelaniaz, aditz jokatu gabeen erabilerari degokionean, euskaraz askoz ere maizago ageri baitira aditz jokatu gabe desegokiak, gaztelaniazkoen aldean.*

*Giltz-Hitzak: Aditza. Elebitasuna. Kode bereizketa. Infinitiboa. Komunztadura. Paradigmak. Pertsona. Morfologia.*

*Este trabajo trata sobre la adquisición de la morfología del verbo por parte de niños bilingües que adquieren el euskera y el castellano simultáneamente, con el fin de fomentar el debate sobre la fusión o separación de idiomas. A pesar de la distinta organización de los marcadores de persona, la adquisición de la morfología del verbo en euskera y en castellano se produce siguiendo una secuencia muy similar: los marcadores de concordancia con el sujeto en el verbo aparecen antes que los marcadores de objeto. Además, estas fases en la adquisición son cronológicamente paralelas en los dos idiomas. Sin embargo, la distribución de las formas de verbo en infinitivo en oraciones principales parecen ser bastante distintas en ambos idiomas: son más frecuentes y muestran mayor variedad en euskera.*

*Palabra Clave: Verbo. Bilingüismo. Separación de códigos. Infinitivo. Concordancia. Paradigmas. Persona. Morfología.*

*Ce travail traite de l'acquisition de la morphologie du verbe de la part des enfants bilingues qui apprennent l'euskera et l'espagnol, afin de fomentier le débat sur la fusion ou la séparation des langues. Malgré l'organisation des marqueurs de personne, l'acquisition de la morphologie du verbe en euskera et en espagnol se produit en suivant une séquence semblable: les marqueurs de concordance avec le sujet dans le verbe apparaissent avant les marqueurs d'objet. De plus, ces phrases dans l'acquisition sont chronologiquement parallèles dans les deux langues. Pourtant, la distribution des formes de verbe à l'infinitif dans les phrases principales semble être assez différente dans les deux langues: elles sont plus fréquentes et plus variées en euskera.*

*Mots Clés: Verbe. Bilinguisme. Séparation de codes. Infinitif. Accord. Paradigmes. Personne. Morphologie.*

---

<sup>1</sup> Artikulugilea Ministerio de Educación y Cultura-k diruz lagundutako PB98-0239 ikerketa-proiektuko partaidea da.

## SARRERA

Haur elebidunen hizkuntza bereganatzearen inguruan egindako azterketen artean bi iritzi nagusiren aldeko lanak aurkitzen dira, hizkuntza hasierako garaian bi hizkuntzak nahasian agertzen direla diotenen aldekoak edo haur elebidunak bi sistemak hasieratik bereiztuta bereganatzen dituela diotenen aldekoak. Hala, Volterra eta Taeschner (1978) edo Vila eta Cortés (1991)-en lanek, adibidez, erakutsi nahi izan dute haurra hasieran bi hizkuntzetarako sistema bakarraz baliatzen dela, eta bilakaeran aurrera egin bezala, bi sistemen bereizketa ere gero eta nabarmenagoa izaten dela. Badira ordea makina bat lan bi hizkuntzak aldi berean bereganatuagatik bakoitzak berariazko bilakaera erakusten duela diotenenak ere, morfosintaxiaren lehen urratsetatik abiatuta. Hala ikus daiteke alemana eta frantsesaren aldi bereko bereganatze prozesuan, Meisel (ed.) (1990)-eko artikulu ugarietan, edo hurbilago, euskara eta gaztelaniaren kasurako Almgren eta Barreña (argitaratzeko), Ezeizabarrena (1996), Elosegi (1998)-renak, besteak beste.

Bi jarrera kontrajarri hauek gogoan izanda eta hizkuntza batek A izena duela eta besteak B abiapuntutzat hartuta, goazen bada, elebidunek hitzezko ekoizpenak aztertzeari ekin aurretik, proposamenetan zehar topa daitezkeen aukera teoriko guzien zerrenda osatzera:

1) haurren bi hizkuntzetako esapideak (A eta B) gramatika sistema bakarra hizkuntza bakoitzeko unitate lexikoen elkartetaren emaitza dira. Berez, hasierako gramatika bakar hau izan liteke A hizkuntzarena (1a), B hizkuntzarena (1b), ez A ez Brena ez den bien nahasketaren ondoren sortutako hirugarren bat (1c), haurrak garapenaren aurretik, jaiotzatik, dakarren sistema unibertsala (1d), edo besteren bat (1e). 2) Bigarren aukera, haur elebidunen hasierako ekoizpenak hizkuntza banatan, bi hizkuntzetako sistemak bereiztuta bereganatzearen ondorio izatearena dugu (A eta B).

Aditz morfologiara mugatzen garelarik, lehenengo hipotesiak elebidunaren gogoan hasieran morfologiarako sistema bakarra egotea aurreikusten du. Honelako hipotesiaren frogagarria haurren hizkuntza ekoizpenetan aurki liteke, esate batera, edozein hizkuntzatan ari dela ere, zenbait morfologia unitate hizkuntza batean zein bestean agertuko balira, antzeko morfologia hutsak agertuko balira bi hizkuntzetan, nolabaiteko errazte-erregelen ondorio edo marka-ordezkatze joeraren ondoriozkoak, eta abar. Hala ere, elebitasunaren emaitza direla baieztatuta ahal izateko, akats edo huts hauek hizkuntza horiek beraiek bereganatzen dituzten haur elebkarrek egiten dituztenak ez bezalakoak direla erakutsi beharra dago.

Beste gai bat ere ikutu daiteke, hasierako *hautazko infinitiboaren aroa*, alegia, hizkuntza askotan aurkitu baita aditz jokatuak esperoko liritekeen testuinguruetan aditz jokagabeak gauzatzeko joera (Haegeman 1995, Rizzi 1993/1994, Wexler 1994), eta joera hau haurren hizkuntza *heldugabea* izatearen adierazgarri(etako bat legez) hartu izan da. *Heldugabe* edo *heltzeke* honekin erran nahi dena ez da besterik, haurren gramatikak heldueneretik bereizten den sistemak direla baino. Hala ere, Sano (1995) edo Wexler (1994,1998) bezalako aztertzaile batzuk dioten bezala hautazko infinitiboaren aroa ez da hizkuntza guztietan gertatzen, subjektua derri-gorrez agertu beharreko hizkuntzetan bakarrik (ez *pro-drop*-etan) baizik. Ezaugarri honen araberaz ez da ez euskaraz eta ez gaztelaniaz espero izatekoa *hautazko infinitiboaren aroa*.

Lan honekin bi gauza erakutsi nahi ditugu:

- Aditz morfologiaren arloan mailakakoa eta garai beretsuetako urratsez osatutako bilakera nabaritzen dela haur elebidunek euskara eta gaztelania bereganatzeko ibilbidean
- baina hala ere, antzekotasun hau ez dela bi hizkuntza aldi berean bereganatzearen ondorio, eta ez dela, beraz, bi hizkuntzetarako gramatika sistema bakar bat izatearen erakusgarri, aditz infinitibo edo jokagabeetan ikusi ahal izango den bezala.

Lehenengo, helduen euskara eta gaztelaniako aditz paradigmaren arteko antzekotasuna eta aldeak aztertuko dira (1.1 eta 1.2 ataletan), eta 2.ean korpusaren berri eman ondoren, haurren ekoizpenak ikusiko ditugu, euskarazkoak eta erdarazkoak (J.a). Aurrerago aditz infinitibo edo jokagabeak aztertuko ditugu helduen hizkuntzan (J.a), ondoren, haurrek ekoiztutako aditz jokagabeak (J.a), eta amaiera ondorioen atalak osatuko du (J.a).

## 1. HELDUEN HIZKUNTZAKO ADITZ JOKATUAK<sup>2</sup>

### 1.1. Gaztelania

Gaztelaniako aditz morfologiak pertsona bereizketa nabaria ahalbidetzen du, aditz forma jokatu bakoitzak pertsona jakin bati bakarrik dagokion marka baitarama (1., 2. edo 3.arena). Horrez gain, bakartasuna zein aniztasuna adierazten dituzten hizkiak ere desberdinak dira, hartara, paradigma bakoitzean 6 pertsona marka aurkitzen direlarik (hiru singularerako eta beste hiru pluralerako). Jokatutako aditz-forma guztiek erroa gehi atzizkiak osatuta daude gutxienez, eta atzizki hau anitza izan ohi da gehienetan, pertsona eta numero markez gain aspektua eta denbora adierazteko zenbait marka ere berak eraman baititzake, bai aditz-forma bakunetan eta baita perifrasiatan ere.

- (1) Aditz jokatu = erroa + atzizkia (tema bokala + pertsona-numero markak)  
*habl + aremos* (a+re-mos)

Pertsona eta numero markak berdin-berdin ikus daitezke aditz ez erregularretan ere, haietan aldatzen dena aditz erroa baita, ez pertsona-markak berak. (Ikus 1. taula)

1. taula: orainaldiko pertsona-markak

	Pertsona markak	Forma erregularrak	Forma ez erregularrak
1s	o/-Ø	cant-o	v-oy
2s	-s	cant-a-s	v-a-s
3s	-Ø	cant-a-Ø	v-a-Ø
1pl	-mos	cant-a-mos	v-a-mos
2pl	-is	cant-a-is	v-a-is
3pl	-n	cant-a-n	v-a-n

Aditz aktiboetan laguntzaile bakarra dago hizkuntza honetan: *haber*. Laguntzaile hau aditz iragangaitz (2a), iragankor (2b) edota ezakusatiboekin (2c) ager daiteke berdin-berdin.

- (2) a. he entrado      b. he comido las manzanas      c. he visto

<sup>2</sup> Laburdurak:

( ): haurrak ahoskatu gabekoa.

#: imitazioa .

D: zehar objektua, datiboa.

pl: plural.

S: subjeto.

(=): testuinguaren araberako gure interpretazioa.

1,2,3: 1., 2., 3. Pertsona.

O: objektu zuzena, akusatiboa.

s: singular.

## 1.2. Euskara

Euskarazko aditza ere morfologia sendokoa da pertsona eta numero tasunetarako, hiru pertsonetarako marka bana bereizten baitira aditz-formetan eta pertsona bakoitzean singularra eta plurala, gainera. Hurrengo taulan ikus daitezke pertsona bakoitzari dagozkion hizkiak, eta baita hizki beroriek ageri diren izenordainak ere, pertsonaren adierazgarri.

2. taula: jokaturako aditzetako pertsona markak

Pertsona	Izenordainak	Aurrizkiak	
		NORK (S,lehen), NOR (S, O)	Ez aurrizkiak NORK (S,orain), NORI (D)
1s	Ni	n-	-t, -da-
2s	Zu	z-	-zu
2s(hika)	Hi	h-	-k,-a-/-n(a-)
3s		Ø -	- Ø, -o, -a
1pl	Gu	g-	-gu
2pl	Zuek	z..te-	-zue
3pl		..z,Ø..e, -te	-e

Oso gutxi dira joka daitezkeen aditzak (*joan, etorri, ibili, eraman, eduki...*) (3a,b), eta gainerako gehienak egitura perifrastikoetan jokutzen dira, partizipioa gehi laguntzaileak osatutako egituretan agertzen direla (3c,d)

(3)	a.	n-aiz		b.	du-t	
	c.	sartu	n-aiz	d.	sartu	du-t

Gaztelaniaz ez bezala, aditzaren iragankortasunaren arabera laguntzaile iragankorra (3d) edo iragangaitza (3c) aukeratzen da perifrasiak osatzeko, euskaraz. Bi hizkuntzak alderatzen dituen beste ezaugarri bat ere bada aditz morfologian: aditzak komunztadura duen osagarrien arabera hurrenkera erakusten dutela pertsona markek. Honekin esan nahi dena da, *n*-lehen pertsona singularraren hizkia izanik, marka hori agertuko dela aditz jokatu batzuetan (1. pertsona subjektua deneko aditz iragangaitzetan, edo objektua den aditz iragankorretan), baina ez guztietan (ez, subjektua 1. pertsona den orainaldiko iragankorretan, adibidez).

3. taula: komunztadura-motaren arabera euskarazko aditz-paradigmak

Paradigmak	Pertsona marken hurrenkera				
	<i>Komunztadura eta aditz mota</i>		<i>Orainaldia</i>		<i>Lehenaldia</i>
1	S (-irag)		NOR	naiz	NOR.. nintzen
2	S-O (+irag)	2a(NOR=1 <sup>a</sup> , 2 <sup>a</sup> )	NOR...NORK	zaitut	NOR..NORK.. zintudan
		2b (NOR=3 <sup>a</sup> s)	[?nor]..NORK	dut	NORK..[?nor].. nuen
3	S-D (-irag)		NOR... NORI	natzaizu	NOR..NORI.. nintzaizun
4	S-O-D (+irag)	(NOR=3 <sup>a</sup> s)	[?nor]..NORI-NORK	dizu-t di-t-Ø	NORK..[?nor]..NORI.. ni-Ø-zun zi-Ø-dan

## 2. KORPUSA

Aztertutako datuak, etxegiroan ingurune elebidunean hazten ari diren bi haurren ekoizpenek osatzen dituzte, Mikel eta Jurgirenek. Etxean euskara eta gaztelania, bi hizkuntzak erabiltzen dira elkarren ondoan, haurrei hitzun bakoitzak beti hizkuntza batean bakarrik hitz egiten badiete ere. Datuak bideozko grabaketa bidez jaso dira, ia hamabosteroko eta hizkuntza bakoitzerako ordu erdi inguruko grabaldietan, haur txikienak urte bete eta zazpi hila-bete zituenetik (hemendik aurrera 1;07) 4 urteak bete bitartean. Haurrek etxekoekin igarotako jolasaldi arruntak izan dira grabaketetako egoera nagusiak, ez esperimentu modura antolatutako egoerak.

## 3. ADITZ JOKATUAK HAURREN HIZKUNTZAN

### 3.1 Gaztelera

#### 3.1.1. LEHEN ESALDI ADIZTUNAK

Hasierako esaldietan ez da *benetako* aditzik agertzen, ez bada, sasi-aditzak, hala nola jokatu ezinezko onomatopeiak (*bumba* (M 1;07); *pumba* (J 1;10)), eta antzerakoak. Hauen ondoan *itxuraz* jokaturako aditzak diruditenak ere ageri dira, hala nola aztertu gabeko zenbait formula (4a,e,i,k,n), edo lehenxeago helduak esandakoaren oihartzuna diren berresateak (4b,c,d), aginterazko esapideak (4h,o), eta kopulak (4g,ñ), besteak beste.

(4)

a.	ya (es)tá	(M 1;07)	i.	mi(r)a	(J 1;11)
b.	#monta(lo)	(M 1;07)	j.	Cogo	(J 2;04)
c.	#e(s) ve(r)dad	(M 1;07)	k.	no qu(i)ero	(J 2;06)
d.	#ha caído x he caído	(M 1;07)	l.	ha metau	(J 2;10)
e.	no qu(i)ero	(M 1;07)	m.	ha tirau	(J 2;10)
f.	ahí teneh (=tienes)	(M 1;07)	n.	no qu(i)elo	(J 2;10)
g.	así (es)tá	(M 1;07)	ñ.	e(s)te e(s) mío	(J 2;03)
h.	ha(z) tú	(M 1;08)	o.	ti(r)a!	(J 1;11)

Itxurazko aditzen arteko batzuk aldagarritasuna handia erakusten dute ahoskerari dagokionean, batzuetan era batera, besteetan bestera osatzen (4l,m) edo ahoskatzen baitira (4k,n).

#### 3.1.2. SUBJEKTUAREKIKO KOMUNZTADURA

Berez, testuinguruari egokiak zaizkion forma jokatuak ekoiztea ez da derrigorrez haurra pertsona markak egin behar direnaz jabetu denaren adierazgarria, pertsona marken gauzateza baliteke oraindik ez emankorra izatea, baliteke, alegia, haurrak buruz ikasi dituen forma osoak izatea, oraindik osagaiak aztertu gabekoak. Bestelakoa dirudi, ordea, haurrak, testuinguruari egoki zaiolarik, soinu-erakunde hizki bera aditz batekin baino gehiagorekin ekoizten duenean, edo aditz bera pertsona marka desberdinekin jokatzeko unetik aurrera ekoiztutako aditz jokaturako pertsona-marken izaera. Hala bada, bietakoren bat aurkitutako grabaketa markatze emankorraren hasieratzat hartuko dugu (5).

(5) PERTSONA markatze emankorra

<i>he</i> caído, no <i>ha</i> matí(d)o	(M 1;11)	1s, 3s haber
cogo (J2;04), no quero	(J 2;06)	1s coger/ querer

Antzeko irizpidea erabili ahal da numero tasunaren emankortasun-garaiaren hasiera data ezartzeko (6).

(6) NUMERO markatze emankorra

Es/ son (?M 2;02); ha/ han	(M 2;05)	3s, 3pl haber
Cae/ caen	(J 3;05)	3s, 3pl caer

Hala ere, bada numeroaren markei dagokienean kontuan izan beharreko beste gertakari bat. Markatzea emankorra izateak ez dakar tasun honi dagokionean, helduek pluraltasuna gauzatuko lukeen testuinguru guztietan haurrak ere hala egitea. Izan ere, pluraltasun markak hasten diren grabaketaren ondoren adibide askotan aurki baitaiteke espero izandako pluraltasun marka ez agertzearena (7b,d,e,f,g).

(7) a.	Son (d)e ltxaso	(M 2;02)
b.	Ahí e(s)tá(n) muchos coches	(M 2;06)
c.	dónde e(s)tán?	(M 2;06)
d.	que está(n) rotos	(M 2;07)
e.	ay jodé que se rompe(n)	(M 2;08)
f.	a mi me gusta(n) estos dos	(M 3;01)
g.	ha(n) salido ca(r)tas	(J 3;00)
h.	e(s) t(r)e(s) (= son)	(J 3;00)
i.	es iguales (= son)	(J 3;05)
j.	se caen	(J 3;05)

Hori dela eta, egokia deritzogu markatze *emankorra* (haurrak markak aztertzen hasi ondorengo) eta markatze *erregularra* bereizteari, bi ahalmenak ez baitira bera hizkuntza bereganatze prozesuan. Hala bada, markatzea erregularra dela esango dugu helduen araberako markatzea haurren ekoizpenen bi herenetan gauzatzen denean (%66).

Bereizketa hau kontuan izanda markatze erregularra ondoko adinetara atzeratu beharra dago, Mikelek 2;05eko adinarekin eta Jurgik agian 3;07rekin, baina ziurrago 3;11rekin gainditu baitute ehuneko hori.

### 3.1.3. OBJEKTUAREKIKO KOMUNZTADURA

Aditzekin oso lotuta dauden beste pertsona-marka batzuk ere badaude gaztelaniaz, berez hizki arruntek bezala jokatzeko ez badute ere, hizkien antzerako ezaugarri batzuk erakusten dituztenak. Esate batera beti aditz jokatuaren ondo-ondoan joan beharra daukate beraiek eta aditzaren tartean ezer tartzekatzerik ez dagoela, azenturik izaterik ez daukatelarik, eta abar. Gainerako izenordainek ez bezalako ezaugarriak erakusten dituzte, beraz, gaztelaniazko klitikoek. Hala bada, eta euskarazko hizkietatik gaztelaniazko izenordainetatik baino hurbilago daudenez, haurren hizkuntzan erakusten duten bilakaera aztertzeari interesgarria iritzi izan diogu. Goraxeagoan aipatutako irizpideen arabera hizkien (eta klitikoen) ekoizte emankorraren data, bi aditzen edo aditz bera bi pertsonetako klitikoekin *jokatu*a ikus daitekeen garaitik aurrera ezarri dugu. Ondoren, bada, bi haurren ekoizpen emankorraren adinak:

## (8) Objektu-klitikoak

<i>déjame, dame</i>	(M 2;01)	1s dejar/ dar
<i>te tiro, te bu(s)ca</i>	(J 3;05)	2s tirar/ buscar

Subjektuearekiko komunztadurarekin ikusi dugun gertakari bera klitikoetan ere: pluraleko markak beranduago agertzen dira haurren ekoizpenetan (10), pertsona desberdinetarako markak baino. Jurgiren kasuan, esate batera, ez dugu lau urteak bitartean adibide bakar bat ere aurkitu.

## (9) NUMERO markak klitikoetan

lo he pertí(d)o/ los hemo(s) popao (=comprado)	3s/3pl	(M 2;03)
		(J ?? )

Pluraltasuna markatzea ere ez da hasieratik espero izandako testuinguruoro gertatzen. Ia urtebete beranduago egonkortu da markatze hau klitikoetan Mikelen kasuan, %66tik gorako ehunekotasuna ez baitu 3;03ko adinera arte erakutsi.

## 3.2. Euskara

## 3.2.1. LEHEN ESALDI ADIZTUNAK

Gaztelaniazko datuetan ikusitakoaren antzera, ekintza, egoera edo egoera-aldaketa adierazteko euskarazko lehenengo esapideetan sasiaditz ugari agertzen dira (*aupa* M 1;07), *papo* (J 1;10)). Maiz ageri dira formula antzeko esapideak ere (10a-c) edo kopulak (11d,e).

## (10)

a. b(eg)i(r)a	(M 1;07)	d. e(z)tau	(M 1;08)
b. e(z)taki(t)	(M 1;10)	e. Peru na	(J 2;04)
c. beitu	(J 2;04)		

Baina batez ere harrigarria gertatzen dena, aginterazko aditz jokagabeen ugaritasuna dugu, horren goiz den garai honetan.

## (11)

a. lelaldu!	(M 1;08)
b. ema(n)!	(J 2;02)
c. apu(r)tu	(J 2;01)

Gazteleraz pertsona bat baino gehiagotarako aditz jokatuetakoa formak oso goiz agertzen badira ere, euskaraz urriagoak dira hasieran aditz jokatuak, eta ageri direnak, gehienetan singularreko hirugarren pertsonari dagozkionak izan ohi dira (10d,e), edota buruz ikasitako aditz-forma jokatu-itxurakoak (10b).

## 3.2.2. SUBJEKTUAREKIKO KOMUNZTADURA

Kopulaz gain, gainerako aditz jokatu gehienak perifrasi-egiturakoak agertzen dira, partizipioa eta laguntzaile batez osatutakoak, alegia. Perifrasi gehienak hirugarren pertsonakoa den *da* laguntzaileak izan arren (12a,b), goiz agertzen dira laguntzaile iragankorra duten perifrasiak ere.

- (12) a. hau apu(r)tu da (M 1;09)  
 b. pipitu (=garbitu) da hau (J 2;08)  
 c. Pi(r)u (=Peru) tonto da (J 2;04)

Komunztadura emankorra ezartzeko gorago erabili dugun irizpideari jarraiki, hara hemen haur bakoitzaren adina, eta ordurako ekoiztuak dituen aditz jokatu formak (13).

- (13) Subjektuarekiko komunztadura. PERTSONA

*da* (kopula eta laguntzailea), *dot*, *dogu* (M 2;00)  
*da* (kopula eta laguntzailea), *da(g)o*, *du* (J 2;08)

Hirugarren pertsona ez ezik besteak ere ageri dira, goiko adibideetan ikus daitekeen bezala. Bestalde, aditz laguntzailearen aukeraketak ez dirudi haurrarentzat inolako arazoa sortzen duenik, ez baitago perifrasieta behar ez den bezalako laguntzailea aukeratutakoaren adibiderik. Dirudenez, haurrak ez du inongo zailtasunik ikasteko *etorri da* esan behar dela eta ez *\*etorri du*.

Pluraltasunari dagokionean, marka hauek beranduxeago agertzen dira gure datuetan, pertsona-bereizketa baino.

- (14) Subjektuarekiko komunztadura. NUMEROA

*da / direz* (M 2;04) izan 3s/ 3pl  
*da(g)o / daude* (J 3;02) egon 3s/3pl

Markatze hau, hala ere, berehala hasten da espero izandako testuinguru gehienetan gauzatzen, ia lehenengo adibidetik aurrera gauzatzen baita testuinguruetan %66 kasuetatik gorako maiztasunaz. Adibidez, Mikelengan oso garbi ez badago ere 2;04ren ondorengo grabaketetan, batzuetan bai eta besteetan huts egin egiten baitu, bost hilabete beranduago marka hau ia testuinguru gehienetan gauzatzen du. Jurgik, aldiz, hasieratik markatzen du pluraltasuna behar den adibide gehienetan euskaraz.

### 3.2.3. OBJEKTU ZUZENAREKIKO KOMUNZTADURA

Objektuarekiko komunztadura bereganatzearen adina ezartzerakoan, arazo formal batekin egin dugu topo. Izan ere, maizen agertzen den objektua hirugarren pertsonakoa izaten baita, eta honi dagokion marka euskaraz morfema hutsa izanik, eta entzun ezinezkoa gertatzen da beraz. Hau hala izateak lana zailagoa egiten du ikertzailearentzat, ez baita beti erraza erabakitzen haurrak *ekarri dut*-eko laguntzailea, adibidez, gauzatzen duenenean, benetan 3.s.-eko objektu batekin komunztadura egin behararen jabe den ala aditz laguntzaile iragankor hutsa aukeratu nahi izan duen, subjektuarekin bakarrik komunztadura duena, alegia. Objektuarekiko komunztadura gauzatzen badakiela baieztatu ahal izateko haurrak 3.pl, 1.a edo 2. pertsona diren objektuekin bat datorren aditza behar bezalako markekin ekoizti beharra dauka. Zoritxarrez, ordea, horrelako objektuei buruz hitz egiteko paradak ez dira ugariak grabatutako haurrek dituzten elkarriketetan, eta hasieran ez eta urriak ere. Ondorioz, hilabete batzuk itxaron behar dira soinu-dun objektu markaren bat aurkitu aurretik (15).

- (15) Objektuarekiko komunztadura

*dozu / (do)zuz* (M 2;04) O3s/3pl  
*dauko / daukoz* (J 3;01) O3s/3pl



3pl, 1. edo 2. pertsonako objektuak (gauzatuta edo isilduta) hizgai maizago izaten hasten direnean, hasieran hurrek nahiago izaten dute subjektuarekiko komunztadura hutsa adierazten duen aditz jokatuak erabili, objektuari legokiokeen markarik gauzatu gabe (16).

(16) Egoki markatu gabeko aditz-adibide batzuk

- |    |                   |           |          |
|----|-------------------|-----------|----------|
| a. | Palak hartu dau   | (= dauz)  | (M 2;08) |
| b. | haundiak bota dut | (= ditut) | (J 3;01) |

Egia da, 1. eta 2. pertsonak objektu diren adibideak oso urriak direla korpus osoan, eta nahikoa berandu agertzen direla: Lehen pertsona absolutibo kasuko objektu zuzenaren adibiderik ez dugu aurkitu, baina aurkitu ditugu bigarren pertsonaren adibideak, Jurgiren datuetan besterik ez bada ere. Hala ere, adibide hauek aditz formaren aldetik zuzenak izan arren, ez dira testuinguruari begira egokiak izan, 2. pertsonako akusatiboa, datiboa izango baitzen helduen hizkeran, ikusita gainera, hirugarren pertsonako O ere esaldian gauzatu dela, eta beraz NOR-I-K laguntzailea beharko litzatekeela adibide honetan, haurrak ekoizitako NOR-K-ekoaren lekuan (17).

(17) tortazo bat emango zaitut (=dizut) (J 3;09)

### 3.2.4. DATIBOAREKIKO KOMUNZTADURA

Objektu zuzenaren kasuan ez bezala, zehar objektu edo datiboarekiko komunztadura markak guztiak dirua soinu-edukidunak euskal aditzean, ez baitago  $\emptyset$  marka dagokion pertsonarik ez NOR-NORI paradigmatan, ez eta NOR-I-Kean ere. Horregatik, komunztadura hau askoz ere ikuserazagoa gerta liteke haurren aditz morfologian. Baina, hasierako aditzetan ez dugu inolako datibo markarik aurkitu ez haur baten, ez bestearen ekoizpenetan, ez baitago ez NOR-I ez NOR-I-Keko aditz adibiderik. Hala ere agertzen hasten direnetik aurrera (M 2;07 eta J 3;03) bi haurrengan aurki daitezke NOR-I eta NOR-I-K paradigmatako adibide bat baino gehiago:

- |      |    |                               |          |
|------|----|-------------------------------|----------|
| (18) | a. | galdu jata                    | (M 2;07) |
|      | b. | eman dosta                    | (M 2;07) |
|      | c. | zuri gustatzen zaizu?         | (J 3;03) |
|      | d. | niri jo egin dit <sup>3</sup> | (J 3;03) |

Hala bada, subjektuarekiko eta objektuarekiko komunztadura baino beranduago ezarri beharra dago datiboarekiko komunztaduraren hasiera Mikelengan (baina ez Jurgirengan), eta baita komunztadura hau emankorra dela baieztatzeko garaia ere, bi haurren datuetan (19).

(19) Datibo marken gauzatze emankorra

jata / dosta, dotzut	(M 2;07)	1s NOR-I/ 1s eta 2s NOR-I-K
zaizu / zaiko	(J ?3;03-3;05)	1s/3s NOR-I

Datiboarekiko komunztadura emankorra izateak ez du, ordea, esan nahi hurrek ekoizitako datibo-markadun aditz guztiak egokiak direnik, asko hala baldin badira ere. Mikelek, esate batera, ez du korpus osoan *zaitut*-en antzeko NOR-K-eko adibiderik, objektu zuzena 1. edo 2. pertsona denekorik, alegia. Pertsona-objekturen bat duenean, erran nahi baita 1. edo 2. pertsonakoa, nahiago izaten du datibotzat hartu, komunztadurarako NOR-I-Keko aditz for-

<sup>3</sup> Jurgik 3;03koan ekoizitako niri jo egin dit adibideak arazo bat baino gehiago sorrazten ditu interpretaziorako, ez baitago argi berezkoa ala imitazioa den.

mak erabiltzen dituela, berez komunztadura bi argumenturekin bakarrik gauzatu beharko litzatekeenean(20a,b).

(20) Egoki markatu gabeko aditz-adibide batzuk

- a. ez dosta hotzituko (=jata hotzituko) (M 4;00)  
 b. lotu (eg)ingo (do)tzut (=egingo zaitut) (M 3;07)

Aditz morfologiaren jabetze prozesuaren ikuspegi orokorragoa erakusteko asmoan, ondorengo taulan subjektu eta objektuekiko komunztaduraren bereganatze adinak biltzen dira (ekoizpena emankorra izaten hasten denekoa), eta aldi berean baita aditz-jokoak adierazten dituen beste bi tasunenak ere: aspektua eta denbora (Ezeizabarrena 1996).

4. taula: morfologia marken ekoizte emankorreko adinak

	Euskara	Gaztelania
Mikel		
SUBJEKTUA	2;00	1;11
OBJEKTUA	2;04	2;01
ASPEKTUA	2;00	1;11
ALDIA	2;10	2;06
Jurgi		
SUBJEKTUA	2;08	2;06
OBJEKTUA	?3;01-3;04	3;05
ASPEKTUA	2;11	2;11
ALDIA	?3;03-3;04	3;05

Datu horien arabera hilabete batzuetako aldea dago Mikelengandik Jurgirengana bi hizkuntzetan eta edozein funtzio-kategoriaz ari garelarik. Hala ere, bilakaera-azterketetan adina erreferentzia bat baino ez da izaten, eta haur bakoitzak erakusten duen bidea bera da garrantzizkoa, hurrenkera erlatiboa, alegia, eta ez horrenbeste kategoria bakoitza bereganatzen den adin zehatza. Ikuspegi horretatik, funtzio-kategorien bereganatze adinetan hurrenkera nahikoa argia badagoela esan daiteke, bi hizkuntzetan eta bi haurengan oso paretsua dena (21): pertsona-markei dagokienean, subjektuarekiko komunztadura objektuekikoaren aurretik menderatzen du haurrak, eta, aspektua eta denborari dagokionean, aspektu-bereizketak lehenago egiten dituzte haurrek orainaldi/lehenaldikoak baino.

(21) Subjektu-Aspektua -> Objektua -> Aldia

Euskarazko objektu zuzenarekiko komunztadurak erakusten duen gardentasun urriagatik, horretan ezer ziurrik esaterik ez badago ere, gainerako argumentuekiko komunztaduretan (gaztelaniazko subjektu eta objektuak eta euskarazko subjektu eta datiboetan) pertsona marken bereganatzea pluraltasunarena baino lehenago gertatzen dela ikusi da. Beste alde batetik, bi tasun hauei dagozkien markak ez dira era berean bereganatzen: lehenengo pertsona-markak nahikoa garaiz agertzen dira eta goizago ugaritzen badira ere gaztelaniaz, euskaraz baino, bi hizkuntzetan beren bereganatzea nahikoa erregularra dela esan daiteke bi hizkuntzetan. Ez da gauza bera gertatzen plural-markekin, bi hizkuntzetan beranduago agertzeaz gain, ez baitira esperoko lirakeen testuinguru guztietan erabat gauzatzen, ez hizketako hasierako lehenengo urte batzuetan behintzat. Subjektu (S), objektu zuzen (O) eta zehar-

kako objektuarekiko (D) komunztaduran, bestalde, alde nabaria ikusi dugu subjektuarekiko eta objekturen batekiko komunztaduraren artean, subjektuarekiko komunztadura lehenago sendotu baita bi haurrengan eta bi hizkuntzetan.

#### 4. JOKATU GABEKO ADITZ-FORMAK HELDUEN HIZKUNTZAN

Aurreko ataletan ikusitako aditz jokatu ez gain, bi hizkuntza hauek beste aditz formak ere badauzkate, jokatuak ez direnak. Datorren atalean, gaztelaniazko eta euskarazko aspektu eta denbora markarik gabeko aditz-formez arituko gara, infinitiboek<sup>4</sup>, alegia, eta batez ere menpekoak ez diren esaldietan ager daitezkeenei buruz.

##### 4.1. Gaztelaniazko infinitiboak

Era bat baino gehiagotako esapideetan aurki daitezke infinitiboak gaztelaniaz, baita menpekoak ez diren esaldietan ere. Esate batera zenbait formulatan (22a), aginterazko esapide batzuetan (22b), hizkera arrunteko 2.pluraleko aditz formen ordez (22c), eta zenbait galderen erantzunetan edo diskurtsoak ahalbidetutako zenbait inguruetan (22d).

- (22)
- a. a *ver*, a *saber*
  - b. ja *dormir*!
  - c. ¡*Mirar* esto! (=mirad)
  - d. Galdera: ¿*que hace*?  
Erantzuna: *dormir* la siesta

##### 4.2. Euskarazko infinitiboak

Euskarazko aditzek ez dute forma infinitiboen adierazgarria den morfema bat, gaztelaniazko *-ar*, *-er*, *-ir*, frantseseko *-er*, *-re*, *-ir*, edo italierazko *-are*, *-ere*, *-ire*; ez eta hizkuntza germanikoeek dituzten partikulak ere, ingelesezko *to*, esate batera. Beraz, formaren aldetik ez dira beti erraz bereizgarriak izaten aditz-erroa, infinitiboa eta partizipio burutua, *bota* bezalako aditz batean, adibidez.

- (23)
- a. bota
  - b. bota dut
  - c. bota ezazu

Berez, jokatu gabeko aditzak nahikoa maiz agertzen dira euskarazko hizketaldian (ahozkoetan batez ere)<sup>5</sup>, eta testuinguru bat baino gehiago dira horrelako aditz-formak ahalbidetzen dituztenak: aginterazko esaldiak (24a), zenbait *egin*-dun galderen ondorengo erantzunak (24b), edo bestelako kontakizunak (24c).

- (24)
- a. jan!
  - b. Galdera: zer egin duzu?  
Erantzuna: *puskatu*
  - c. Etorri zen, eta nik *ikusí* ez

<sup>4</sup> *Infinitiboak* deituko ditugunak hiztegiatiko sarrera legez hautatzen diren aditz-formak dira, jakinda, hala ere, euskarazko *bukatu* bezalako aditz-forma bat infinitibotzat har daitekeela, testuinguruaren arabera.

<sup>5</sup> Ezaugarri hau euskaldunen *gaztelania txarrean* ere oso nabarmena izan izango da gaztelania ama-hizkuntza izandakoen belarrietara, eta txiste eta kanta asko dira gai honen inguruan sortuak; *yo quería comprar una bicicleta, pero no madre gabardina querer...* hizketa honi farre egin nahian.

## 5. HAURREN HIZKERAKO INFINITIBOAK

Duela urte batzuk esaldi nagusie buruz egindako azterketa batean ikus ahal izan genuenez, haurren hizkuntzan oso maiz agertzen dira infinitiboak esaldi nagusietako aditz bakar bezala. Azterketa hartan euskaraz infinitiboek (jokatu gabeko aditzek, alegia) aditz guzien %20ko ehunekoa osatzen zuten Mikelen datuetan, eta %35ekoa Jurgirenetan. Haur beraien erderazko ekoizpenetan, aldiz, askoz ere urriagoak ziren: %3aren inguruan bi haurrengan. Hala ere, infinitibo hauetako batzuk egokiak ziren arren, baziren egokiak ez zirenak ere, bi haurrengan.

### 5.1. Haurren gaztelaniazko infinitiboak

Gure haur elebidunek ekoiztiko gaztelaniazko infinitiboak era batekoak baino gehiago-koak izan dira: formulak (25a), 2. pluraleko aginterazkoaren ordezkokoak (25b), edota testuinguruak ahalbidetutakoak, *hacer* aditza duen galderari emandako erantzunak (25d-f), besteak beste.

(25)	a.	<i>a ve(r)</i>	(J 1;11) eta (M 1;07)
	b.	<i>esperarme eh?</i>	(M 3;00)
	c.	Helduak: entonces, ¿yo qué voy a hacer? Tú <i>kua</i> (=¿jugar)	(M 2;00)
	d.	Helduak: ¿qué hacía Dumbo? <i>Volar</i>	(M 3;10)
	e.	Helduak: ¿tú qué haces con las ruedas? <i>Borar</i> (=volar)	(J 3;00)
	f.	Helduak: ¿qué hace? Eh, <i>pone(r)</i> así	(J 3;10)

Era honetakoak helduen hizkuntzan ere nahikoa arrunt diren adibideak dira, baina ez dira horrelakoak izaten haurrek ahoskatutako infinitibo guztiak. Esate batera, badira zenbait kasu aditz jokagabea gauzatu dutena, aditz jokatua bakarrik espero zitekeen testuinguruetan. Askotan egiteko asmoa duen ekinga bat adierazteko erabili izan dituzte haurrek horrelako aditz jokagabeak, nolabait esateko, badirudi perifrasi luzeago baten zatia baino ez dena gauzatu dutela zenbaitetan (26a,b), beste batzuetan ere agian bai (26c,d), parentesi artean adierazten den perifrasi osoaren ordezkari, edo.

(26)	a.	Ahora <i>tira(r)</i>	(=¿hay que tirar)	(M 2;04)
	b.	E(s)te coche ( <i>a</i> ) <i>pa(r)</i> <i>ca(r)</i>	(= voy a aparcar)	(M 2;07)
	c.	Helduak: venga, que pasen <i>Pasá(r)</i> muchos	(=van a pasar/pasan)	(J 3;00)
	d.	Ese <i>pone(r)</i>	(=hay que poner/ se pone...)	(J 3;11)

### 5.2. Haurren euskarazko infinitiboak

Euskaraz maiz erabiltzen dira jokatu gabeko aditzak esaldi nagusietan, eta ez da harritzekoa, beraz, haurren hizkuntzan ere hala agertzea. Testuinguruak gaztelaniazkoak baino era gehiagotakoak izan dira. Hala, helduen hizkuntzan bezala, agertu dira aginterazkoak (27a,b) eta *egin*-dun galderaren erantzunak (27c-d), eta haez gain, baita beste modal batzuen erantzuna izan direnak ere (27e).

- (27)
- |    |   |          |
|----|---|----------|
| a. | <i>hartu</i> Ana!                               | (M 1;09) |
| b. | <i>utzi</i> hemen!                              | (J 2;07) |
| c. | Ad: zer ein biozu?<br>be(s)te(a) <i>ha(r)tu</i> | (M 1;09) |
| d. | Ad: zer eitten dute?<br>(a) <i>pu(r)tu</i>      | (J 2;01) |
| e. | Ad: zer nahi duzu?<br><i>atti(r)a</i> (=atera)  | (J 2;06) |

Baina badira testuinguruaren arabera egokiak ez direnak ere, makina bat, berez, aditz jokatuak esperoko liratekean testuinguruetan gauzatutakoak, nonbait perifrasiaren zatia falta-ko balitzaie bezala. Gaztelaniazko adibide okerretan ez bezala, euskaraz aspektu-denbora erreferentzia anitza izan daiteke, batzuetan gertakizunarena (28a,c), besteetan burututakoarena (28b,d), edo hizketaldiaren aldi berekotasunarena (28e).

- (28)
- |    |                            |                    |          |
|----|----------------------------|--------------------|----------|
| a. | <i>bota</i> hemen          | (=botako dut)      | (M 2;01) |
| b. | ho(r)i <i>amatau</i>       | (=amatau da)       | (M 2;01) |
| c. | eta hau <i>ipini</i> hemen | (=ipini biot)      | (M 2;10) |
| d. | <i>buta</i>                | (=bota egin dut)   | (J 2;01) |
| e. | hemen(d)j(k) <i>pasa</i>   | (=pasatzen ari da) | (J 2;07) |

Menpekoak ez diren esaldietako aditz forma infinitiboak ikusi ondoren baieztatu daiteke bi hizkuntzen arteko haurren infinitiboen artean badagoela aldea: batetik, eta helduen hizkuntzek alde aurretik ere hala espero izateko aukera ematen ziguten bezala, infinitiboen maiztasuna oso bestelakoa ageri da euskaraz (%30 ingurukoa) eta gaztelaniaz (%3 ingurukoa). Hala ere, hizkuntza batzuen bereganatze prozesuan hasieran infinitibo aroa dagoela diotenak ez dira ari egokiak diren infinitiboez, desegokiak direnez baizik, zehazkiago, helduek jokatu-ko litzkeen aditz-formen ordez gauzatutako infinitiboez.

Gure haurren datuetara itzuliz geroz, infinitiboak oso ehuneko txikian dira desegokiak gaztelaniaz, aditz guztien %2 eta 3 bitarteko proportzioa baitira, beraz infinitibo arorik ez dagoela esan daiteke gure haurren gaztelanian. Dena den, azaltzeke geratzen da oraindik, zergatik agertzen diren horrelako infinitibo desegokiak ia 4 urte dituztela (26d).

Oso bestela gertatzen da, ordea haur berauen euskaran. Orokorrean gaztelaniaz baino maizago ageri diren infinitibo horietan ia gehienak okerrak dira hasieran (%74 M, %100 J) baina ehuneko hauek nabarmen doaz jaisten, eta 4 urteetara hurbiltzen doazen bezala %20ra inguratu dira. Harrigarria gertatzen da adin horretan infinitibo desegokiak maiztasuna horren nabaria izatearena, oraindik<sup>6</sup>.

## 6. ONDORIOAK

Bi haur euskara-gaztelania elebidunen ekoizpenen azterketak aukera paregabea eskaini digu aditz-jokoko funtzio-kategorien adierazgarri diren morfologia-marken garapena mailakatu eta oso antzera gertatzen dela egiaztatzeko, bi hizkuntzetan. Pertsona-markak numeroa-renak baino lehenago bereganatzen ditu haurrak, eta subjektuarekiko komunztadura (*nor* zein

<sup>6</sup> Infinitibo okerrak hasierako *heldu aurreko* garai baten adierazgarria badira (Wexler 1994) datu hauen arabera esan liteke haur hauek euskaraz goizago *heldu* direla, gaztelaniaz baino, baina baieztapen hau *errazegi* eta *arinegi* adierazitakoa izango litzateke beste hizkuntza elementuen garapena kontuan izan gabe.

*nork* euskaraz) lehenago erakusten du bi objektuetako edozeinekin baino, bai euskaraz eta baita gaztelaniaz ere. Beste funtzio-kategorien artean ere ikus daiteke aldiberekotasuneza, aspektua eta denboraren artean, adibidez, eta beraz, pentsatzekoa da haurrak funtzio-kategoria bakoitzerako bereganatze prozesu berariazkoa jarraitzen duela.

Berez, bi hizkuntzen morfologia bereganatzeen arteko antzekotasun hori bi hizkuntzak aldi berean ikasten ari dituztelako dela pentsa zitekeen, nolabait hasieran gramatika bakar bat izatearen ondoriozko emaitzak direla (1. hipotesia), gramatika bera izanda, hizkuntza bakoitzeko unitate lexikoak hartzen aritu balira bezala. Hala ere, bi sistemen arteko interferentziarik ez dago, esateko, eta datu hauek hobeto azal daitezkeela, uste dugu, bi gramatikak hasieratik bereiztutako sistemak bezala bereganatzen dituela haurrak esanez gero. Gainera datu hauek oso bat datoz Barreñak (1994, 1995) aztertutako hirugarren elebidunaz gain, behatu duen laugarren haur elebakarraren datuekin erkatuz geruz, eta beraz, gaztelaniaz ez dirudi eraginik izan duenik haur elebidun hauen euskaran.

Bestalde, jokatu gabeko aditz-formak ekoitzi diren testuinguruen azterketak datu berriak eman dizkigu kategoria morfologiko bera bi hizkuntzetan zein desberdin garatzen den ikusteko: euskaraz hautazko infinitiboen aroaren antzeko zerbait dagoela esan daiteke, baina aro horren amaiera ez da pertsona-morfologiaren menderatzearekin batera gauzatzen denik ikusi, izan ere 4 urteetan oraindik maiz ageri baitira infinitibo ez egokiak. Gaztelaniaz, aldiz, oso urriak dira orokorrean aditz jokatu baten lekuan jokatu gabekoa ekoitzi dituzten adibideak, eta hau hasieran gertatzen da inoiz, baina oso tarteka gerorago. Bilakaera desberdin honek, bi morfologia-sistemak bereiztuta bereganatzen dituztela erakusten du, eta beraz, gramatika bakarraren hipotesia saihesteko argumentu bat gehiago dugu.

## BIBLIOGRAFIA

- ALMGREN M. & BARREÑA A. (argitaratzeko) "Bilingual Acquisition and Separation of Linguistic Codes: Ergativity in Basque Versus Accusativity in Spanish", K. Nelson, A. Aksu-Koc & C. Jhonson (eds) *Children's Language, Volume 10: Language in Use, Narratives and Interactions*, Lawrence Erlbaum Associates
- BARREÑA A. (1994), "Sobre la adquisición de la categoría funcional COMP por niños vascos", *La adquisición del vasco y del castellano por niños bilingües*, J. Meisel (ed) Frankfurt am Main, Vervuert, 231-284.
- BARREÑA A. (1995), *Haur euskaldunen hizkuntzaren jabekuntza-garapena: INFL eta KONP funtzio-kategorien erabilera*, Bilbo, EHUren argitalpen zerbitzua.
- BARREÑA A. (1997), "Haur elebidunak eta gramatika-sistemen bereizketa", *Fontes Linguae Vasconum* 75, 173-217.
- ELOSEGI K. (1998), *Kasu eta preposizioen jabekuntza-garapena haur elebidun batengan*, Bilbo, EHUren argitalpen zerbitzua.
- EZEIZABARRENA M. J. (1996), *Adquisición de la morfología verbal en euskera y castellano por niños bilingües*, Bilbo, EHUren argitalpen zerbitzua.
- HAEGEMAN L. (1995), "Root infinitives, tense, and truncated structures in Dutch", *Language Acquisition* 4(3), 205-255.
- MEISEL J. (ed.) (1990), *Two First Languages. Early Grammatical Development in Bilingual Children*, Dordrecht, Foris.
- RIZZI L. (1993/1994), "Some notes on linguistic theory and language development: the case of root infinitives", *Language Acquisition* 3, 371-393.
- SANO T. (1995), *Roots in Language Acquisition: a Comparative Study of Japanese and European Languages*, Doktoretza tesia, Los Angeles, UCLA.
- VILA I. & CORTÉS M. (1991), "Aspectos relativos al desarrollo lexical y morfosintáctico de los bilingües familiares", *Adquisición del lenguaje en niños bilingües y monolingües - Hizkuntz jabekuntza haur elebidun eta elebakarretan*, 109-127, I. Idiazabal (ed), Donostia, EHUren argitalpen zerbitzua.
- VOLTERRA V. & TAESCHNER T. (1978), "The acquisition of language by bilingual children", *Journal of Child Language* 5, 2, 311-326. Ikus, bestela (1983) "La adquisición y el desarrollo del lenguaje en niños bilingües", *Infancia y Aprendizaje* 21, 23-36.
- WEXLER K. (1994), "Optional infinitives, head movement and the economy of derivations", *Verb Movement*, D. Lightfoot & N. Hornstein (eds), Cambridge, C.U.P., 305-350.
- WEXLER K. (1998), "Very early parameter setting and the unique checking constraint: A new explanation of the optional infinitive stage", *Lingua*, 106, 23-79.